



JARRAIBIDEA, 2026KO IRAILAREN 11KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, LANALDIA MURRITZUZ GERO ZUZENDARITZA-TALDEKO EGINKIZUNAK BETETZEAGATIK KARGU-OSAGARRIA JASOTZEKO IRIZPIDEAK ZEHAZTEN DITUENA.

9/2023 DEKRETUA, otsailaren 28koa, hezkuntzaren arloan eskumena duen sailaren titulartasuneko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan zuzendaritza-funtzioa eskuratzeari, prestakuntza jasotzeari, hura ebaluatzeari eta aitortzeari, eta huraosatzen duten karguak uzteari buruzkoak; 20.2. puntuak, zuzendaritza-funtzioaren onarpena arautzen du, eta honako hau ezartzen du:

“Zuzendaritza-taldeko kide guztiei jarduna dagokion lanpostuaren edo irakaskuntza-eginkizunaren berariazko osagarriarekin ordaindu behar zaie, Eusko Jaurlaritzak zehaztutako zenbatekoen arabera, besteak beste, ikastetxearen dimentsio-irizpidea kontuan hartuta.”

Zuzendaritza-kargudun batek lanaldia murrizten duen kasuetan, ordainsariak murrizketa horren proportzioan murriztuko dira; murrizketa duen zuzendaritzako kideak behean aipatutako hiru baldintza hauek batera betetzen dituen kasuetan izan ezik, kasu horretan osagarri osoa jaso ahal izango du:

- Bere benetako lanaldia % 66koa edo handiagoa izatea.
- Bere murrizketak ez eragitea zuzendaritza-karguari eskainitako orduak.
- Asteko egun guztietan ikastetxean bere presentzia bermatzea.

Zuzendaritza-kargua betetzen duen pertsonak hiru irizpide horiek batera betetzen baditu, zuzendaritza-karguagatik esleituta duen osagarri osoa kobratu ahal izango du, Tramitagune bidez hala eskatzen badu, eta baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzen bada. Bestela, dagokien zati proportzionala jasoko du.

Vitoria-Gasteizen, instrukzioa sinatzen den egunean.

Unai Nieto Marijuan

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

